

## **Eibarko «Umeen Euskal Jaia»**

«Umeen Euskal Jaia» ospatu izan da Eibarren, maiatzaren 20tik 28rarte, «Sociedad Cultural Recreativa Arrate» erakundearen\* arduraz\* eta «Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa» diruetxearen babespean. Jaialdi hori dala eta, «Concurso infantil de música vasca», «Concurso infantil de trabajos manuales», haurrentzako euskal liburu eta diskoen erakusketa, haurren antzerkiak eta abar izan dira. Era berean, jarraiko mintzaldi honeek eman izan dira: «Euskal kulturaren historia literaturaren bidez» Ibon Sarasolak, «Euskal hizkuntza eta kultura gaur» Eusebio Osak, «Euskal kulturaren bideak gaur» Luis Haranburu-Altunak, «Euskal antzerkia euskaraz» Anjel Lertxundik.

Eibarko «Umeen Euskal Jaia, ospatzen direnetatik indartsuena izateaz gainera, guztien artean aurrerazaleenetarikoa da.